

Dena prest irailaren 24tik 27ra fakultateak antolatuko duen "European Teacher Education Network 2015"-erako

2015/09/14

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak dena du prest irailaren 24tik 27ra egingo den *European Teacher Education Network 2015* (ETEN) topaketarako. Jardunaldi horietan mundu osotik etorritako 50 hezkuntza fakultateko ordezkariak, landuko dituzte, besteak beste, ikasleen mugikortasuna eta unibertsitateen arteko lankidetzaren ildo berriak. Partaideak etorriko dira Europa, Amerikako Estatu Batuak eta Asiatik.

Lau egunetan zehar, ikasleen mugikortasunaren bueltan, bildutako ordezkariak hainbat lan bilera eta *workshop* egingo dute. Izan ere, fakultateen arteko ikasleen joan-etorria indartzea da iraileko topaketa honen helburu nagusia. Gainera, topaketa baliatuko da partaideen arteko harreman pertsonalak lantzeko; bilkurak, nola ez, aisialdiarako uneak ere eskainiko ditu. Lan saio horiek guztiak egingo dira Arrasaten, Eskoritzan eta Donostian.

ETEN (*European Teacher Education Network*) 1988an sortu zen. Batez ere, Europako hezkuntza fakultateak dira sarearen kide, guztira, 21 herrialdeetako 60 erakunde. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK 2006tik hartzen du parte sarean. Erakundeak bi helburu nagusi ditu: nazioarteko mugikortasuna sustatzea eta ezagutza elkartrukatzeko foroak antolatzea.

Informazio gehiago:

- Topaketaren webgunea: [European Teacher Education Network: ECO and TIG Leader Meeting 2015](#).
- Topaketaren koordinatzaileei *MUniversitas* aldizkarian egindako elkarrizketa: ["ETEN sarea, nazioarteko mugikortasuna sustatu eta ezagutza elkartrukatzeko"](#).
- ETEN sarearen webgunea: [ETEN](#).



Hezkuntza arloko ikerlariak
Aretxabaletako campusean.